

AITZINA

Editorea: Fermin Murriz. Koordintzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egoña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.  
Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@teletelne.es

## NORANTZA

# ANTXON URDANGARIN

## HERNANIKO UDALETXEO LANGILEEN ORDEZKARIA

# «Eraikuntza nazionalaren aldeko apustua egin dugu langileok»

Hernaniko Udaletxeko langileentzat laneguna da gaur. Estatu espainiarreko patroio Santiagoren eguna ospatzen den honetan, langileek Madrildik inposatutako jaiegunei uko egitea erabaki dute.

## AMAIA MUNDINANO

Euskal Herria pixkanaka herrietatik eraikitzen hasi behar dela esaten da, eta Hernaniko Udaletxeko langileek hitzetatik ekintzetara jauzi egin, horri ekin diote. Zentzu horretan, Estatu espainiarreko patroio Santiagoren egunean, uki bezala, lanera joatea erabaki dute.

Gaur toki askotan jaieguna bada ere, zuek lanean ari zarete, ohi bezala. Zergatik?

Proposamen hau LAB sindikatuaren egitasmo batean oinarritzen da. Sindikatuan egindako hausnarketa sakon baten ondoren, eraikuntza nazionalen aurerra egin beharra zegoela erabaki genuen, urrats txikiak eta xumeak emanez bada ere. Gure ustez, Euskal Herriko langileek bertako jaiegunak izendatzeko eskubidea dute, eta Madrildik inposatzen dizkiguten jaiegunei uko egiteko. Zentzu horretan, 2000. urteko lan egutegia egitekoan, betiko egutegia alde batera utzi eta alternatibo bat proposatzea erabaki genuen.

Zer-nolako aldaketak agertzen ditu proposatu duzuen egutegi alternatiboak?

Aurreko galderan esandakoa kontuan hartuta, Madrildik inposatzen dizkiguten jaietatik esanguratsuenak edo izan daitezkeen hiru aukeratzea erabaki genuen: uztailaren 25a, urriaren 12a eta abenduaren 6a. Egun hauetan lan egitearen ordainean, lau opor egun gehiago eskatzen genituen.

Zein izan zen langileek gai honen aurrean erakutsi zuten jarrera? Nola hartu zen erabakia?

Guztira, modu batera zein bestera, Udaletxean lanean aritzen garen kopurua 200 langile ingurukoa da, eta ordezkarien gehiengoa LABekoak gara. Lan egutegian halako aldaketa bat proposatzekoan eta gure erabakia Udaletxera zuzentzerakoan, langileon batzarren oniritzia beharrezkoa zela pentsatu genuen. Hori dela eta, bizpahiru batzar egin ondoren, langileen gehiengoak proposamenekin bat egin zuen. Behin onetspena izanda, Udaleria jo eta honetako gure proposamena onartu zuten.

Bidean oztoporik aurkitu al duzue?

Hasieratik, ELA eta CCOO sindikatuak egitasmo honen aurka azaldu dira eta, baita ondoren EA eta EAJ ere. Udaletxean errekurtsio sartu eta ez onartzean, Gizarte Epaitegira jo zuten. Epailera inibitu egin da, gai honen inguruko erabakiak hartzea berari ez dago kiola argudiatuz eta beste epaitegi batera jo dezaketela esanez. Oraingoz inork ez digu esan egindakoa egun indarrean dagoen legearen aurka doanik. Dena den, guk erabaki hau ondorio gutzietan hartu dugu, eta ez dugu atzera egingo.

Estatu espainiarreko desobediencia mota hau Euskal Herri osora zabaltzeko beharreako al da?

Bai, dudarik gabe. Badakigu, gainera, Euskal Herriko beste udalteez batzuetan ere guk egindakoa egin dutela. Gertatzen dena da oihartzuna Hernanin egindakoa izan duela. Baina, tira, pixkanaka Euskal Herri osora zabaltzen joango dela pentsatzen dut.

Zein izango da hurrengo urratsa?

Datorren urteko lan egutegian, hiru egun horien ordez hemengo jaiegunak izendatzea da gure asmoa. Aurtun, lau opor egunen eskaera egin bada ere, egun horietan Euskal Herriarentzat esanguratsuak diren hiru jaiegun izendatu nahi ditugu. Pausu txikiak baina eragin korrikak ematea da garrantzitsua eta horretan jarraituko dugu. Ekimen hau abiapuntua baino ez da, eta pixkanaka eraikuntza nazionalaren aldeko ekintzak ugarituz joatea da gure asmoa.



Conny Beyreuther

## Zirtoka



Txillardegí

## Aburukide

Aburukide nauka, bai, erabat, Edorta Jimenez lankideak.

Europar gaindi Literatur Espresioan burututako bidaiatik, Frantziaren eta Espainiaren nazioekeria ukatzaileak nazkatu iztuli da bizkaitar idazlea.

Bizi izandako gazi-gezez izkriburen bat plazaratzea agindu du. Liburu bat agian. Begiak Europa aldera zabaltzea emango lioke askori. Betor liburua.

Ertusiaren nazionalismoa higuin garri irudituko zaio. Txetxeniaren «bidelapur mordo bat» besterik ez dagoela adierazten omen dio «Ksarren» nostalgikoko batek.

Oro har, baltikar herri txikien asardiki eta abertzaletasunak hunkitu bide dut sakonki gure ordezkaria.

Stalinismoaren garaian gertatutako inbasio sobietarren ondorioz, gutxiengo huts bihurtuak dira beren herrian bai estoniarrik, bai letoniarrik.

Ez dira ikildu, ordea. Eta arisku gaitzak hartuz, eta europar progresia metropolizaleak botako zituen madarikazioei jaramon ez eginenez, ez diete eskubide politikorik aitortu nahi kultur asimilazio-nahi minimoak erakutsiko ez dituzten erustarrei.

Etorkinak eta kanpotar zapaltzaileen morroi fidelak berezi beharra hartu dute ideia nagusitzat. Eta horri eutsi diote tinto.

«Baltikoko Errepubliketako maiteminduta etorri naiz» dio Edortak.

Ni neu ere, orain dela hamar bat urte eskualde haiek bisitatu nituenean, horrelaxe etorri nintzen. Eta Tallinn, Riga, Jurmala, nekez ahaztuko ditut.

## AITZINDARIAK

BEGIRALE ARROTZ

IKARLITADAN

183

73

LA GUERRA EN NAVARRA ES PARA AQUELLOS HABITANTES UNA GUERRA NACIONAL, Y CON CERTA DIFERENCIA LO ES IGUALMENTE EN LAS TRES PROVINCIAS EXENTAS. Marqués de las Amarillas.

Dembowsky:  
NAFARTARREK ETA BASKONGADEK HERRA BIZIA DIETE ESPAINOLEI, MENPERATZAILA ESTRANJEROTAKO DAUZKATE ETA.

Tradizionismo Karlistikak Popularen zinezko oinarri nazionalak dauzka:  
MILURTEKO IRABULTZAREN HONDARRA BAITA. Karl Marx

Tienen la sensación de que defienden, a su familia y a su pueblo contra una ocupación extranjera. Extramiana

NAZIOARTEKO GERRA DA EUSKALDUMEN ETA CASTILLANEN ARTEKOA. Carme Vitorica

C'EST UNE GUERRE ABSOLUMENT MODERNE ET PROSAIQUE: GUERRE D'INDEPENDENCE.

Faucher